

KANALAK

Gure produktuari buruz hitz egiterakoan daukagun abantaila handiena lehia askorik ez dagoela da, produktu nahiko diskretoa eta ezezaguna izan delako urte askotan zehar. Hala ere, horrek ere gure kontra jotzen du, askoz ere zailagoa delako produktua mundu osora helaraztea eta jende guztia produktua ezagutzea lortzea.

Horregatik, jendearekin komunikatzeko kanal eta bide sinple eta argiak behar ditugu. Lehenik et behin, gaur egun gazte zein heldu askotara ailegatzeko modurik errazena sare sozialak eta web-guneak dira, gaur egun jende guztia mugikorra duelako eta geroz eta jende gehiago erabiltzen duelako bai erosketak egiteko eta bai gaurkotasunari buruz informazioa jasotzeko. Era berean, bi kanal hauek Espainatik kanpo hedatzeko aukera paregabea ematen dute, mundu guztira ailegatzeko askoz ere errazagoa delako.

Hala ere, gertutasun fisikoa ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu eta horren ondorioz denda fisiko bat ere izatea pentsatu dugu. Era berean, kanal tradizionalagoetara bueltatuz deiak egiteko telefono bat eta idazteko gmail-a ere izango dugu, batez ere, gaur egun askotan erabiltzen ditugun kanal direlako. Gainera, kontuan hartu behar dugu zenbait heldu ez dituztela teknologia berriak kontrolatzen eta haienzako komunikatzeko modurik errazena metodo tradizionalagoak erabiltzea direla.